

## 2010-2011 IKASTURTEA



**ARDURADUNA:** JUBILATUAK, CARITAS

**PARTAIDEAK:** JUBILATUAK, CARITAS ETA ESKOLAK

**DATA:** 2010eko abenduaren 11 baino lehen

**HELBURUAK:**

- Jakiak biltzea,
- Ordiziako famili behartsuei laguntza eskaintzea
- Ikasleen artean sentsibilitatea eta elkartasuna lantzea

**BALIABIDEAK:**

Materialak: Saskia, kartoizko kutxak, elikagaiak, kotxea, eskolako aldizkaria, irratia

Giza-baliabideak: boluntarioak, familiak, tutoreak, prentsa, irratia eta telebistako irakasle arduradunak, gelako ikasle ordezkariak

**METODOLOGIA:**

Jubilatuek, Caritasek eta ikastetxeetako ikasle eta interesatuen artean janarien bilketa antolatu, Gabonetan Ordiziako familia behartsuei eskaintzeko.

OHARRA: OJPErekin egindako kanpaina.

**BALORAZIOA:**

Saski bat bete zen janariz eta Caritas-i eman zioten.

Ekimena Jubilatuenen sortu zen eta gero, Hiri Hezitzaile programako bilera batean zabaldu zen ikastetxeetera.

Ongi atera zen.

Caritasekoekin izandako solasaldia oso interesgarria eta aberatsa iruditu zitzaien ikasleei, baina geletara zabaltzeko denbora gutxi izan genuen.

**HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:**

- Denbora gehiago eskaini behar zaio ekintza honi (informazioa eman, tutoretzan landu, geletako asanbladako ekarpenak jaso, janaria bildu, eramanez, Caritasekoekin izandako solasaldia tutoretzara eta hedabideetara

eraman

- Saskia eramatera, gelako ordezkarietz gain hedabideetako ikasleak joatea.
- Tutoretzan lantzeko beste saio bat antolatu.

## 2011-2012 IKASTURTEA



**ARDURADUNA:** CARITAS eta JUBILATUAK

**PARTAIDEAK:** CARITAS, JUBILATUAK, URDANETA IKASTETXEA

**DATA:** Abenduaren 14 – 22

**HELBURUAK:**

- Janariak biltzea
- Ordiziako famili behartsuei laguntza eskaintzea
- Ikasleen artean sentsibilitatea eta elkartasuna lantzea

**DESKRTIBAPENA:**

Otarra betetzen da denen artean bildutako jakiekin. Jubilatuek beren aldetik antolatzen dute egoitzan Saskia Caritasen laguntzarekin. Bestetik, Urdaneta Ikastetxean bertan ere zentroan beste saski bat jarri da Caritasekin harremanetan.

**BALIABIDEAK:**

Saskia, aurkezpen kartelak, Jubilatuen egoitza (saskia bertan uzteko).

**METODOLOGIA:**

Jubilatuen egoitzan eta Urdaneta Ikastetxean saski bana jarri dira, zentro bakoitzean janariak biltzeko, eta Gabonetan Ordiziako familia behartsuei eskaintzeko.

**BALORAZIOA:**

Ona, benetan oso ona. Atera dugun ondorio nagusia izan da krisi garaian izanik ere, oso aberasgarria dela ikustea nola jubilatuek solidarioak izaten jarraitzen duten.

Ekintzak balio izan du, Caritasekin dagoen harremana dela eta, Urdaneta Ikastetxeak ere bere aldetik Caritasekin beste Saski Solidario bat egiteko.

## 2012-2013 IKASTURTEA



**PARTAIDEAK:** Ikastetxeak, Caritas eta Jubilatuen Elkartea

**DATA:** 2012ko azaroaren 30etik abenduaren 20ra

**BALIABIDEAK:**

Krisi ekonomikoari buruzko informazioa

Caritas-eko arduradunen iritziak.

**BALORAZIOA:**

Gustura gelditu gara ekimen honekin. DBHO 1eko ikasleak krisiaren gaia landu ondoren, ekimen zehatza jarri dute praktikan Ordizian. Janari bilketa egin da herrian banatzeko Caritasen bidez.

## 2013-2014 IKASTURTEA



**PARTAIDEAK:** Zuhaizti zentroa, Caritas, Urdaneta Ikastetxea, Jakintza Ikastola.

**DATA:** 2013ko abendua

**HELBURUAK:**

- Krisiaren eraginez, zenbait pertsonak bizi duten egoeraz jabetzea.
- Solidaritatea lantzea eta gizartean duen garrantziaz jabetzea.
- Karitasek egiten duen lanaz jabetzea eta errespetatzea.
- Elikagaiak behar dituzten pertsonenganako elikagaiak biltzean arduraz jokatzea.

**DESKRTIBAPENA:**

Saski Solidarioa gabonetan egiten den kanpaina da, eta bertan Ordiziako familia behartsuentzako janari bilketa egiten da. Bertan, Jubilatuen Elkartek, Caritasek eta Ikastetxeek parte hartzen dute, eta herritar orori zabaldua izaten da. Caritasen laguntzarekin, jubilatuek saskia beren egoitzan jartzen dute eta ikastetxeetan ere beste saski bat jartzen da. Horrez gain, zenbait tailer antolatzen dira ikasle eta helduen artean krisiaren ondorioez jabetu eta solidaritatea lantzeko.

**BALIABIDEAK:**

Informatika gela, argazki kamerak, oharrak, karitaseko arduradunak, areto-gela, otarrak...

**BALORAZIOA:**

Oro har balorazio oso positiboa izan da. Garai batean ematen genituen teoria etikoak ekintza etiko baten ordezkatu ditugu eta, ikasleak, Ordizian krisiak izan duen eraginaz ohartu dira. Horrekin batera, horrelako ekintza batek suposatzen duen antolaketa eta arduraz ohartu dira haiek izan baitira benetan gauzatu dutenak.

## 2014-2015 IKASTURTEA



### **ARDURADUNA: Iñaki Hidalgo, Ikastetxeak, Zuhaitzi, Garagunea**

**PARTAIDEAK:** Ikastetxeak, Zuhaitzi Jubilatuzentzako, Garagunea (4 emakume, gizonezko 1 eta profesional 1), Caritas.

Nori zuzentzen zaio: Ikastolako ikasle eta gurasoei.

Gizonezkoak %      Emakumezkoak %

Hartzailearen adina: ....

### **BALIABIDEAK:**

Informatika gela, argazki kamerak, oharrak, karitaseko arduradunak, areto-gela, Garagunearen instalakuntzak...

### **BALORAZIOA:**

Proiektu hau "Ordizia, hiri hezitzaile" egitasmoaren barruan sartzen da. Proiektuaren helburua lana denon artean egitea, Ordizia solidarioago bat lortzeko. Jubilatuen elkarteak, Caritasek, Garaguneak eta Urdaneta eta Jakintza ikastolek parte hartu dute ekimenean, eta helburua elikagaiak biltzea da, Caritasi eman, eta ondoren, horiek, behar gehien duten herritarren artean banatzeko.

Proiektu honen abiapuntua [Caristas](#)-etik laguntza eske etorri zirenean eman zen. Horrela, beraiei laguntzeko jana bilketa antolatzeaz gain, DBHn krisiaren inguruko lanketa ere egiten da.

Lankidetzaren solidarioa sustatzen da, eta balore horiek lantzen dira garagunean erabiltzaileekin.

Horrela, herriko erakunde desberdinekin elkartu ondoren (Caritas, epaitegia, banketxeak krisiaren larritasunaz ohartu dira ikasleak .

Oro har balorazio oso positiboa izan da. Garai batean ematen genituen teoria etikoak ekintza etiko baten ordezkatu ditugu eta ikasleak Ordizian krisiak izan duen eraginaz ohartu dira. Horrekin batera horrelako ekintza batek

suposatzen duen antolaketa eta arduraz ohartu dira haiek izan baitira benetan gauzatu dutenak.

Prentsaurrekoan parte hartzen duten Garaguneko pertsonak ez dute ulertzen bertan adierazitakoa, ez dutelako euskara menperatzen.

**OHARRAK** Garagunekoek Hiri Hezitzaileen 2. printzipioarekin lotu dute.

<http://www.gitb.eus/bideoak/azken-berriak-hasiera/2909-saski-solidarioa>

<http://www.diariovasco.com/tolosa-goierri/201412/02/regresa-campana-saski-solidarioa-20141202001121-v.html>